


JUAN JOXE IRURETAGOiena

“ORIOKO JAUNA”

Joxan Goikoetxea

"Orio" eta "Jauna", horiexek dira hernaniarren belaunaldi batek baino gehiagok Juan Joxe Iruretagoiena izendatzeko erabili izan ditugun izenak. Gizatasun handiko pertsona honek musika irakasten zuen, Udal Musika Banda eta Schola Cantorum zuzentzen zituen eta haurrez osatutako hainbat eta hainbat abesbatzaren zuzendari ere aritua zen. Bere ikasle izan ginenok, musikaz gain, balore ugariren jabe egin gintuen gizon hark, horietako bat azpimarratzearren euskararekiko kontzientziazioa eta maitasuna azpimarratuko nuke.



J.J. Iruretagoiena Ibarguren

Orion jaio zen 1919ko otsailaren 1ean, hortik bere lehen ezizena.

Juan Joxek musikarekiko lehenengo harremana sorterrian bertan izan zuen, hango abesbatzan kantatzen baitzuen. Gazte zelarik, familia Hernanira etorri zen bizi izatera. Hamazazpi urterekin Florida auzoko Georget Fils berniz eta pintura lantegian egiten zuen lan administrari gisa. Lantegi honen jabeak frantsesak izaki, atzerriko hizkuntzak ikasten hasi zen Juan Joxe, eta bazuen horretarako abilezia. Frantsesa eta ingelesa ikasi zituen.

Esan beharra dago, 21 urte bazituela musikari serioski heldu zionerako. Gaztetan zaletasunik handiena kirola izan zuen.

ekipoetarako hartu zituzteneko garaiak ziren hauek. Juan Joxek ere izan zuen bere aukera, Murtziako F.C.-k egin zion bertan jokatzeko eskaintza, baina baztertu egin zuen.

Juan Joxeren beste zaletasunetarikoa bat pilota izan zen. Oraindik gogoan dugu nola arratsaldero joaten zen Galarreta frontoira eta bertan familiakotzat zeukaten.

Lan ugari egin zuen Luistarrek antolatzen zituzten gazteentzako pilota txapelketa haiek prestatzen, herriko beste hainbat pertsonarekin batera, hots, Etxeberria, Urretabizkaia, Portugal eta, zer esanik ez, Juanito Olano, azken hau izan zen txapelketa ezagun hauen arima. Luistarrek garai hartan, 40-50 hamarkadetan, jarduera asko antolatzen zituzten, pilota txapelketaz gain, zartzuela kontzertuak



Lagunekin plazan. Pedro M^o Mariezkurrena, Domingo Arbiza, Joaquín Garmendia, Paulino Elozegi, Juanito Olano eta Juan Jose Iruretagoiena; Manolo Santana, Isidro Ciosa, Joxe Arrieta, Jose Luis Zubillaga eta Joxe Laburu.

Futbolekin jokatzeko, hegaleko postuan nagusiki, abiadura eta trebetasun handia zituelako. CES ekipoan jokatu zuen, hantxe egin baitzituen bere ikasketak, baita C.D. Hernani-n, Tolosan eta Zarautzen ere. Garai hartako kroniketan irakur daitekeenez, Hernaniko jokalaririk onetsuena zen Juan Joxe. Hernani garai hartan, 1940-41, lehen erregionalera igo zen eta 1942ko ekainaren 28an Gipuzkoako Kopa jokatu zuen Atotxan Vasconiaren aurka. Hernaniko hainbat jokalaririk, Pasieguito, Martinez, Arruti, Gorrotxategi, Setien edo Iraola, besteak beste, lehen mailako klubek beren

Zintzotasunarekin (Juan Joxe ez zen oso zalea, hain zuzen ere) edota bertso-jaialdia. Garaiko agintariek oso begi onez ikusten ez zituzten ekitaldiak ziren hauek eta arazo bat baino gehiago izaten zen beharrezko baimenak eskuratzeko. Bertsolariek kantatu behar zituzten bertsoak ere itzuli beharra zegoeneko garaiak ziren haiek, bertsolariek zer kantatu behar zuten jakitea ere...

Futbolaz eta pilotaz gain, mendia eta arrauna zituen atsegin. "Oriotarra" izaki, kolore horia barne-barnean zerraman eta Santanderreraire ere joana zen lagunekin arrauna ikustera. Beren traineruaren atzetik ibiltzen ziren, txalupaz ere bai, hala suertatuz gero. Mendizaletasuna ere handia zuen eta Aralar-Igaratzako



Juan Joxe (erdian dagoena) ibilaldi neurtu batean.

artzainak eta parajeak ederreki asko ezagutzen zituen. Bere txangoetatik bueltan, Tolosako gazteei desafio egin zalea zen, oinezko lasterketa zeinek azkarrago egin, oso trebea baitzen horretan nahiz eta ez zion trebetasun horri etekin handirik atera. Ibilaldi neurtu askotan hartu zuen parte Luistarrekin eta marka onak egin zituen, dominaren bat edo beste ere bai tartean, inoiz nabarmendu gabe, ordea.

Txirrindulari lasterketaren batean ere hartua zuen parte eta eroriko ederra ere bai Etxearreko aldapatik (Cuesta de la muerte) jaisten.

Musika 21 urterekin hasi zen ikasten. Hasieran Orion (Santiago Azurza organojolearekin), Hernanin (Jesus Zubimendirekin) eta ondoren Donostiako Kontserbatoriora joan zen. Pianoa eta konposizioa ikasi zituen Francisco Escudero jaunarekin eta ikasketa amaieran Fuga espezialitateko Saria jaso zuen. Izakera beroko gazte honek bere lana utzi eta musikari ekin zion.

Compostelan eta Madrilen (Tomas Blanco Maisuarekin) hobekuntzarako hainbat ikastaro egin zuen.

Gipuzkoako Aldundiaren laguntza bati esker, Sienara jo zuen ikastera. Italiako hiri honetan bi egonaldi egin zituen eta musikari ospetsu batekin aritu zen ikasten.

Maisu handi hau Sergiu CELIDEBACHI zen (1912-1996), errumaniarra, Berlin eta Munich-eko orkestra filarmonikoen zuzendaria.

Ikasle batek baino gehiagok dugu gogoan nola kontatzen zigun Juan Joxek Italian izandako esperientzia, zein gogorra izan zen ordurarte ikasitako guztia albo batera utzi eta bere irakaslearen irakasteko metodoetara egokitzea (kontuan hartuta, batez ere, zer nolako metodikoa zen Juan Joxe bera).

Urte hauetan musikari ospetsuak ezagutu zituen Juan Joxek, Carmelo Bernaola edo Garcia Asensio, besteak beste, eta harreman estua izan zuen beraiekin.

Donostiako Zinemaldiaren inguruan, 1966an, elkarrekin egoteko aukera izan zuten eta Sta. Barbara Elkartearen bazkari bat egin zuten. Bertan ziren aipatu ditugun Celidebachi, Bernaola, Garcia Asensio e. a.

Musikaren arloan egin zituen lagun eta harremanei esker, hernaniarrok maila handiko musika-ikuskizunak gozatzeko aukera izan dugu. Hortxe dugu bere ikaskidea izandako Garcia Moino gitarrajoaleak, garai hartan Belgikan bizi zenak, eman zigun kontzertua.

Juan Joxe Donostiako Apaiztegia ere hasi zen eskolak ematen garai hartan eta Hernanin, berriz, lehenengo saiakera "Schola Cantorum" abesbatza egin zuen, Gabriel Olaizola hernaniarrari zuzendaritza lanetan lagunduz. Lan honetan aritu zen abesbatza ospetsu hau desagertu zen arte.

Schola Cantorum abesbatza gogotik aritu zen hamabost bat urtez zehar. Bere jardueren artean batzuk aipatzekotan, hortxe dugu "Sorgiñeta"ren errepresentazioa, San Joan bezperan Hernaniko plazan izan zen ikuskizuna, Victor Olaizola bilbotarraren Balletak eta Udal Musika Banda lagun zituela. Ikuskizun hau Bilboko Arriaga antzokian izan zen ondoren. "Illeta" (Escudero maisuarena) ere entzun ahal izan genuen Hernanin. Ondoren, Tolosako Leidorra, Victoria Eugeniara eta Iruñeko Gayarre antzokira eramane zuten.

Kontzertu ugari eskaini zuen Schola Cantorum abesbatzak Gipuzkoako herrietan nahiz Iparraldean. Espainiako hiri zenbaitetan ere kantatu zuten, aipagarrienak, Burgosko Katedrala eta Leon. Horietako batean entzule "ilustre"rik ere bazen, Espainiako Informazio eta Turismo ministro zen Manuel Fraga kasurako.

Schola hartako kideak elkartzeko oraindik topaketa batzuen inguruan. Kide haietako batzuk entzun ditzakegu gaur egun ere herriko abesbatzetan (Eliz Barrutiko Abesbatza nahiz Kantuz-en).



Schola Cantorum.

Eta Juan Joxerengana itzulita, 1963an ohorezko postua lortu zuen Musika Banda Zibilen Zuzendarientzako Madrilan egin zen oposizioan; 74 izangaik hartu zuten parte. Bere familiartekoez gogoan dute zenbat prestatu behar izan zuen froga hartarako. Beti bezala, batere nabarmendu gabe aritu zen lan hartan ere, oso apala eta ixila baitzen.

Behin postu hori lortuta, Juan Joxek Hernaniko Udaleko Musika Bandaren zuzendari izatea eskatu zuen. Eta postu hau 1966ko irailaren 9an eskuratu zuen, J. Antonio Ruiz Bona zuzendari ohiaren lekua hartuz. Langintza horretan 1984a bitartean aritu zen, gaur egun zuzendari den Manuel Sagarnak hartu zuen arte.


Urte bete beranduago, 1985ean, erretiroa eskatu zuen bere borondatez (1985eko apirilaren 30ean), eta urte

horretako abenduaren 1ean omenaldi hunkigarria eskaini zion herriak egindako lan guztiagatik.

Handik lau urtera hil zen, 1989ko azaroaren 10ean, 70 urterekin.

Metodikoa eta patxadazko gizona izaki, etengabeko ikasketan aritu zen, Italiara eta Londresa egiten zituen bidaieetatik ekarritako liburuetatik edanez. Alemana ikasten ere hasi zen biziki gogokoak zituen musikarien obra, Stockhausen, Carl Off... aztertu nahian.

San Joan elizako organoa ere jotzen zuen Manuel Yabenekin batera, Jesus Zubimendi hil zelarik. Udaleko musika eskolan ere aritu zen irakasle gisa Manuel Yabenekin.



Udaleko Musika Eskolan irakasten.


Konposizio lanetan ere ibili zen eta hauexek ditugu, besteak beste, bere lan batzuk:

- **Jaio da.** Eguberrietako kantua abesbatzarentzako
- **Graduale simplex.** Organo eta abesbatzarentzako Meza.
- **Godalet Dantza.** Abesbatzarentzako kantua
- **Maite-sugar bizi.** Abesbatzarentzako kantua
- **Agurtzane.** Haizezko boskotea, 1982ko Musikasten estreinatua.
- **Bakarne.** Soprano, abesbatza eta orkestrarentzako poema (Donostiako Kontserbatoriotik eskuratu, artikulua hau zela-eta aitzakia). Estreinatua gabea.

Bere herri eta kulturarekiko gizon konprometitua zen eta bereziki hizkuntzarekiko. Euskara biziki maite zuen eta sentibera zen. Maitasun hori bere lagun, ezagun eta ikasleei sentiarazten saiatu zen.



1965eko Santa Zezilia egunean.



Ezkiaga Pasealekuan haurren abesbatza zuzentzen.

Horrela, 1968an "Solfaketa irakasbidea. Ikaskai berriak - Erri abestiak" izeneko liburua argitaratu zuen Erviti argitaletxean. Musika irakasteko euskarazko lehen metodoa da (euskararentzat hain zailak ziren garai haietan gainera...).

Liburua argitaratzeaz gain, aipagarria da gizon honek, oraindik finkatu gabe dagoen musika-hizkeraren normalizazioan egindako lan eskerga.

Udal musika eskolan 20 urtez aritu zen Juan Joxe irakasle, eta herriko hainbat abesbatza ere zuzendu zituen, Urumea Ikastolakoa esaterako. Eta belaunaldi horretakook gara Juan Joxeri "Jauna" deitzen diogunak, eta benetan harro gaude Juan Joxe bezalako pertsona eskuzabal, emankor eta apalaren ikasle izanaz.

"Eskerrikasko Jauna"



1985eko apirilaren 30ean berari eginiko omenaldia.

Mila esker artikulua hau idatzi ahal izateko laguntza eman didazuen guztioi: Jose Antonio Gaztañaga, Floren Iruretagoiena, Kontxa Iruretagoiena, Ana Munduate, Ion Bagües (ERESBIL), Jesusmari Gomez (Udal Artxiboa), Malores Etxeberria (Udal Euskara Zerbitzua), Luis Berrondo, Patxi Odriozola, Bakarne Odriozola, Jesus Mari Olano, Manuel Sagarna, Ines Sarasua, J.M. Martin, Pako Iraola, Luis Fernandez, M^a Pilar Lujanbio, Iñaki Apezetxea, Koldo Bravo (Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko Liburutegia), Ignacio Iruin, Joxe Larrañaga, Tomas Aragües, Carmelo Bernaola eta Juan Jose Arregi.